

## **Euskal zientzilari handiena**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-03-30: 10.

Julian Ajuriagerra Otxandion jaio zen 1911n, urtarrilak 7 zituela. Ajuriagerratarrak bost anai-arreba izan ziren: euskal erresistentziari bizia eskaini zioten Juan, nagusiena, eta Flabio gazterik hil zena, gaur Bilbon bizi diren Marina eta Rosario, eta hil berria den Julian.

Herrian Juan izan zen entzutetsuena; internazionalki, Julian.

Julian Ajuriagerra oso gazterik irten zen herritik, batxilergoa amaitu bezain laster, eta Parisera joan zen; bazekien zertara: psikiatra izan nahi zuen. Kaskagogorrek izan dira otxandiar hauek, eta Julianek 1933an amaitu zuen medikuntza Parisen bertan. Seinek psikiatri ospitalean hasi zen lanean berehala, eta hemen, L'Hermitage neurologo famatuarekin prestatu zen doktoradutza egiteko. Tesi honen izenburua: 'Nerbio-sistema nagusiko eritasunaren dolorea'. Handik lau urtera 1937an, Bilbo erori zen urtean, Pariseko Henry Rousselle ospitalean ospe handikoa izango den 'Haurren motrizitateaz eta mintzairaz' ikerketa egiteko ekipoa sortu zuen. Bost urte geroago, 1942an, etengabeko ikerketa lana argitaratzen hasi zen, 1946an, Neurologia eta Psikiatriako irakasle izendatu zuten, frantsesa ez den batentzat bakan egin ohi dena. 1954ean lortu zuen Estatuko doktoradutza.

Ez dut uste, eta ez dut nire burua arriskatzen, euskaldunok neurri honetako beste zientzilaririk eman dugunik.